Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

# *Paulo Okamika Gabiola*

*Gizaburuaga, Bizkaia (1942)*



Aurkibidea

## Biografia



Paulo Okamika 1942an jaio zen Gizaburuagako Laxier auzoko Agarre baserrian. Ama zuen bertoko baserrikoa. Gerra garaian eta moja zegoela, baserrira bueltau behar izan zen bi anaiek bizitza galdu zutelako. Eskolara gutxi joan zen Paulo eta baserriko lanetan aritzen zen lanean, animaliekin eta sagarrondoekin gehienbat. 1967an, 25 urte zituela, Gizaburuagako zinegotzi izendatu zuten eta 16 bat urtez ibili zen Udalean. Baserriko lanetan aritu da bizitza guztian.

## Zintak

### GIZ-013

- **Proiektua**: Lea Ibarreko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sapsootham, Itziar
- **Data**: 2025-11-25
- **Iraupena**: 71 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Sapsootham, Itziar

## Pasarteak

### 1. Gizaburuagako Agarre baserria

- **Erref**: GIZ-013/003
- **Iraupena**: 0:04:08. **Hasi**: 00:00:51. **Bukatu**: 00:04:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

**Laburpena**:
<p>Agarre (Agirre) baserrian jaio zen Paulo. Aboro baserrian emagin bat edo erditzen laguntzen zuen emakume bat zegoen. Herriko baserri eskasena dela dio, eguzki oso gutxi jasotzen duelako. Baserriaren lurrez eta soroez hitz egiten du.</p>

### 2. Gizaburuagan sagar asko ekoizten zen

- **Erref**: GIZ-013/004

- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:04:59. **Bukatu**: 00:07:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

**Laburpena**:
<p>Garai batean baserrira igotzeko biderik ere ez zegoen. Andabideetatik eraman behar izaten ziren hildakoen gorpuak. Sagar asko ekoizten zen Gizaburuagan eta narra batzuen bitartez mugitzen ziren sagarrez betetako otarrak. Sagarrak Bilboko San Anton plazan saltzen zituen amak. Jendea Bilbotik ere heltzen zen herrira sagarrak erosteko.</p>

## 3. Gizaburuagako sagarrak Gipuzkoan saltzen ziren

- **Erref**: GIZ-013/005
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:07:33. **Bukatu**: 00:09:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

**Laburpena**:
<p>Gaur egun, sagardorako erabiltzen den sagarra zahartu egiten da. Garai batean, ordea, sagar berriarekin egiten zen. Herrian sagarrak saltzen zituzten bi pertsona zeuden. Gipuzkoan, Asturiasen... saltzen zen. Sagardotegi bat ere egon zen herrian.</p>

## 4. Baserriko lana, urte osoko lana

- **Erref**: GIZ-013/008
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:11:04. **Bukatu**: 00:12:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

**Laburpena**:
Sagarrez gain, ardiak eta behiak izan dituzte baserrian eta baita ortua eta soroa ere. Baserriko lana urte osoko lana da. Esnea ere saltzen zen eta esne-saltzaileak egon dira herrian.

## 5. Ganaduak beti zaindu behar dira

- **Erref**: GIZ-013/009
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:12:45. **Bukatu**: 00:14:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

**Laburpena**:
Semeei esaten die baserriari eutsi behar zaiola. Behiak zelaiak garbitzeko erabiltzen dituzte gehienbat. Ganaduak zaindu egin behar dira baina ez da lan handia.

## 6. Moja zen amak baserriko ardura hartu zuen

- **Erref**: GIZ-013/011
- **Iraupena**: 0:03:35. **Hasi**: 00:15:08. **Bukatu**: 00:18:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

**Laburpena**:
<p>Pauloren ama moja sartuta zegoela, baserriko maiorazkoa hartzeko deitu zioten. Anaia gerran hil zenez eta gainontzeko senideak beste leku batzuetan bizi zirenez, berak eraman behar izan zuen baserriko ardura. Gerran hildako osabaren istorioa kontatzen du.</p>

## 7. Osaba Zaragozan eraila

- **Erref**: GIZ-013/013
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:18:58. **Bukatu**: 00:20:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

**Laburpena**:
<p>Gerrara joan zen osaba Zaragozan hilobiratuta zegoen eta Gizaburuaga ekarri zuten. Pauloren ama moja bezala zegoen eta elizatik atera behar izan zuen baserriaz arduratzeko.</p>

## 8. 1910an erosi zuen aitonak baserria

- **Erref**: GIZ-013/016
- **Iraupena**: 0:01:56. **Hasi**: 00:21:27. **Bukatu**: 00:23:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

**Laburpena**:
<p>1910ean erosi zuen bere aitonak Agarre baserria. Soldadu zegoela hil zen aita 48 urterekin. 1998an hartu zuen Paulok baserriaren lurren jabegoa.</p>

## 9. Lan faltagatik Ameriketara lanera

- **Erref**: GIZ-013/018
- **Iraupena**: 0:02:46. **Hasi**: 00:30:57. **Bukatu**: 00:33:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Diaspora » Disporara bidaia » Diasporara joateko arrazoiak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

**Laburpena**:
<p>Garai batean ez zegoen guztientzat lanik eta jende asko joaten zen Ameriketara. Bere aitonak bi seme bidali zituen lanera hara. Garai batean, ugazaba batek lur asko zituen. Agarre baserrian zegoen maizterra errenta ordaindu ezin eta beste baserri batera joan zen.</p>

## 10. Elizara astero

- **Erref**: GIZ-013/021
- **Iraupena**: 0:02:01. **Hasi**: 00:41:11. **Bukatu**: 00:43:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

**Laburpena**:
<p>Eskolara oso gutxi joan da. Mezetara joaten zen eta gaur egun ere joaten da. Etxetik irteteko aitzakiarekin mezetara joaten da eta gero tabernara.</p>

## 11. Igandero erromeria Gizaburuagako tabernan

- **Erref**: GIZ-013/022
- **Iraupena**: 0:02:29. **Hasi**: 00:43:12. **Bukatu**: 00:45:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

**Laburpena**:
<p>Bi taberna ezagutu ditu Gizaburuagan. Garai batean, beste bat ere bazegoen. Erromeriak egiten ziren. Igandetan erromeria egoten zen eta Oletako Anton izeneko soinu-jotzailea joaten zen jotzera.</p>

## 12. Neska-laguntzea erromeriaren ondoren

- **Erref**: GIZ-013/023
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:45:41. **Bukatu**: 00:47:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

**Laburpena**:
Erromerian dantza suelto eta elkarrekin egiten zen. Gauerdi aldera bukatzen zen eta neskei etxera laguntzen zieten. Horrela ezagutu zuen Paulok bere emaztea.

## 13. Guardia zibilaren errondak

- **Erref**: GIZ-013/026
- **Iraupena**: 0:00:59. **Hasi**: 00:49:46. **Bukatu**: 00:50:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Polizia

**Laburpena**:
Umea eta gaztea zelarik, guardia zibilak gutxienez astean bitan buelta bat ematen zuen Gizaburuagatik. Lekeition zeukaten kuartela.

## 14. Erdaldunik ez zegoen herrian

- **Erref**: GIZ-013/028
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:50:57. **Bukatu**: 00:52:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen egoera
- Lanbideak » Negozioak, dendak

**Laburpena**:
Garai batean ez zegoen erdaldunik Gizaburuagan, okindegian lan egiten zuen morroi bat izan ezik. Okinaren familiako kontuez hitz egiten du.

## 15. Baserrietara bideak egiteko laguntzak

- **Erref**: GIZ-013/029
- **Iraupena**: 0:04:21. **Hasi**: 00:52:51. **Bukatu**: 00:57:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

**Laburpena**:
Kaletik baserrira joateko bidea berak egin zuen eskuz. Basoa landatzeko dirulaguntzak zeuden baina baserrietara heltzeko bideak egiteko ez. Berak bidea egin eta gero hasi ziren laguntzak.

## 16. Zentral elektrikoak 3 orduko argia emanten zuen

- **Erref**: GIZ-013/030
- **Iraupena**: 0:03:37. **Hasi**: 00:57:12. **Bukatu**: 01:00:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

**Laburpena**:
<p>80. hamarkadan zentral elektriko txiki bat zegoen eta dinamo batekin ere etxeetara argia heltzen zen. Ez zegoen argindarra sartuta herri guztian. Zentralak hiru orduko argia bakarrik ematen zuen egunero.</p>

## 17. 1967an Gizaburuagako zinegotzi izandakoa

- **Erref**: GIZ-013/031
- **Iraupena**: 0:02:54. **Hasi**: 01:00:49. **Bukatu**: 01:03:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

**Laburpena**:
<p>1967an Gizaburuagako zinegotzi bihurtu zen, 25 urterekin.</p>

## 18. Aldaketa asko herrian

- **Erref**: GIZ-013/033
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 01:05:21. **Bukatu**: 01:06:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

**Laburpena**:
Gaur egun Gizaburuagan bertan jaiotako oso gutxi daude. Jendea kanpora joaten da bizitzera.

## 19. Okelarako behiak baserrian

- **Erref**: GIZ-013/036
- **Iraupena**: 0:02:39. **Hasi**: 01:08:21. **Bukatu**: 01:11:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak

**Laburpena**:
<p>Baserriko kardua seme batek hartu du baina Paulok behiak zaintzen ditu oraindik. Okelarako behiak dituzte.</p>

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
*2026-07-06*

**CC-by-sa** | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com